



IKASTETXEAREN HARRERA PLANA

AURKIBIDEA

IKASLEEN HARRERA PROZESUA

1. **Familiarekin lehenengo harremanak**
 - 1.1. Lehenengo elkarrizketa
 - 1.2. Bigarren elkarrizketa.
2. **Ikasle berria etorri aurretik**
 - 2.1. Ikaslearen herrialdea eta kultura ezagutzeko jarduerak
 - 2.2. Ikaslearen egoeran jartzeko jarduerak
 - 2.3. Ikasle berriari eskaintzeko materialen prestakuntza
3. **Ikasle berriaren lehen eguna**
 - 3.1. Aurkezpena gelan
 - 3.2. Hasierako uneak(1)
 - 3.3. Hasierako uneak (2)
4. **Integrazioa bultzatzeko jarduerak**
 - 4.1. Sarrera
 - 4.2. Integrazioa bultzatzeko jolasak
 - 4.3. Egokitzapen prozesuaren faseak
5. **Eranskinak**

1. IKASLEEN HARRERA PROZESUA

1.1. HH2 KO IKASLEEN ESKOLARATZEA.

Modu honetara garatuko da:

- Udaletxean izenak eta helbideak eskatuko dira. (Otsailean)
- Korreoz edo eskuz (ezaguna bada) epea irekitzen den egunean hurrengo dokumentazioa bidaliko zaie:
 - ❖ Hezkuntza Sailak bidaltzen duen izena emateko orria.
 - ❖ Matrikulazio epea orria.
 - ❖ Jangela, zaintza, garraio orria. ER0201HA01
 - ❖ Guraso elkarteko bazkide orria. ER0201HA02
 - ❖ Ikastetxeko informazio bisuala. K/G (Kodetu gabea)
- Ikasle bakoitzari karpeta bat irekiko zaio ZE0201HA01. Karpeta bakoitzari erregistro zenbakia emango zaio.
- Ikasturtearen lehen eguna:

Ikasleen ordutegia lehen egunetarako moldatu egiten da, bi txanda antolatuz.

1. txanda ->10:00etatik - 11:00etara
2. txanda ->11:30etatik - 12:30etara

Haurrak egokitze prozesuan urratsak ematen dihoazten eran, taldeak txertatzen eta ordutegia luzatzen joango gara. Prozesu hau modu lasaien eta progresiboan egingo dugu, beti ere, haur bakoitzaren nortasuna eta desberdintasunak errespetatuz. ME0201HA01 azaltzen den moduan

1.2. IKASLE BERRIAK BESTE MAILETARA

1.3. TUTORE ALDAKETA DELA ETA, GAUZATUTAKO HARRERA

- Orokorrean, ziklo aldaketa ematen den bakoitzean, irailean, **GIT antolatuko da**. GIT hauetako partaideak honako hauek izango dira, taldea uzten duen tutorea, hartzen duten irakasle taldeak eta laguntza taldeko kide bat. Bileraren garapenean puntu hauek tratatuko dira: ikasleen informazioa, taldearen ezaugarriak, Maila berriko antolaketa: arautegia, ekintzen egutegia, txokoen funtzionamendua...
- Ikasle bakoitzeko informazioa gurasoekin elkartrukatuko da beharren arabera.
- Bereziki **Lehen Hezkuntzako 1. mailara** datozen ikasleei, orain arte ezagutu gabe dituzten ikastetxeko zenbait gela erakutsiko zaizkie: ingelera, musika, gimnasioa (aldagelak, dutxak)...Baita ere jolas garaiko antolaketa azalduko zaie.
- Ikasturtearen lehen eguna:

Ikasleen ongietorria tutoreek gauzatuko dute. Horretarako lehenengo eguneko ekintzak tutoreekin batera burutuko dituzte: aurkezpenak egin, gelako antolaketa ezagutu, ikasturtean zehar behariko den material zerrenda osatu, ZE0201HA04aren arabera, ikasturteko informazioa zabaldu... ER0201HA05dokumentuan oinarrituz.

2. IRAKASLEEN HARRERA PROZESUA

Irailean edo ikasturtearen zehar (gutxienez 15 eguneko ordezkapenak direnean) datozen irakasle berriekin pauso hauek jorratuko dira:

- Irakasleen aurkezpenak egin.
- Bulegoan, datu pertsonalak/ posta elektronikoa eskatzeko ereduak bete ERO201HA07
- Eskolaren berri emango zaie, ZE0201HA02 n agertzen den informazioa luzatuz. Honetarako bi bilera burutuko dira ZE0201HA05 n zehazten den moduan
- Jarraitu behar duten programazioei buruzko informazioa luzatu
- Ikastetxea erakutsi.
- Zikloko irakasleekin harremanetan jarri.
- Harreraren inguruko balorazio orria betetzeko eta zuzendariari entregatzeko eskatu ERO201HA08

3. FAMILIEN HARRERA PROZESUA

3.1. HH2 KO IKASLEEN FAMILIAK

- Ikasturte berria hasi aurretik 2 bilera orokor burutuko dira. Bata ekainean eta bestea irailan ZE0201HA06n zehazten den moduan
- Hasierako gelako bilerara psikologoa bertaratuko da, honek adinari dagozkion ezaugarriak eta familien jarrerei buruz hitz egingo du.
- Honez gain, gelako funtzionamendu eta antolaketari buruzko Power Pointa prestatuko da, ZE0201HA06 zerrendan oinarrituz.
- Irakasleen informazioa eskuratzeko, gurasoekin bakarkako bilerak egingo dira, oinarri moduan galdetegi bat eskuratuko zaie. Galdetegi hau DK0201HA02, bilera aurretik gurasoek erantzunda izatea eskatuko zaie. Baita ere, haur eskolan egon diren ikasleen informazioa, haur eskolako tutoreengandik eskuratu da.
-

3.2. ESKOLAKO BESTE FAMILIEN HARRERA

- Ikasturte hasierako bilera orokorren datak zehaztuko dira.
- Ziklo aldaketa dagoenean gurasoekin banakako elkarrizketak burutuko dira.
- Lehen Hezkuntzako 1.zikloko gurasoekin bi bilera orokor burutuko dira. Bata Urriaren hasieran eta bestea azaroan ZE0201HA07n zehazten den moduan
- Gurasoen bilera orokorra gauzatzeko erabiliko den zerrenda ZE0201HA03 berrikusiko da eta txertatu beharreko proposamenak sartuko dira.
- ZE0201HA03 zerrendaren arabera, gelako funtzionamendu eta antolaketari buruzko Power-point a moldatuko da.
- Bilerara gonbidatuz idatzia luzatuko zaie ERO201HA10 ereduak jarraituz.
- Ikasturte hasierako bilera orokorra gauzatu da, bileraren inkesta ERO201HA12 azaldu, betetzeko eskatu eta jasoko da.
- Bilera burutu ondoren, gurasoekin adostutako bilerako informazio-akta etxera bidaliko da.
- Tutoreek, aurreko ereduak kontutuan hartuz ERO201HA11 modu informatikoan beteko dute.

4. IKASLE ETORKINEN HARRERA

4.1. FAMILIAREKIN LEHENENGO HARREMANAK

Familia iritsi berriak **zuzendaritza-taldearen** eskutik jasoko ditu ikastetxearen lehenengo inpresioak. Beraz, garrantzitsuak dira, oso, hasierako kontaktuak.

Lehenngo elkarrizketa

Garrantzitsua da **zuzendariak**, edo lehen kontaktu horren ardura duen pertsonak, leku atsegina eta denbora nahikoa izatea kontaktua lasaitasunez eta etenik gabe egiteko.

Familiarekin izaten den lehenengo elkarrizketan ematen den informazioa oinarritzakoa eta ulertzeko modukoa izatea komeni da; ez da komeni familia behartzea ezin eman dezakeen edo eman nahi ez duen informazioa ematera. Gerora egingo diren kontaktuetarako komunikazio-oinarriak ezartzea da helburua.

Familiaren hizkuntza arrotza egiten zaigunean, eta baliabiderik ez dagoenean, Lurralde Ordezkaritzako itzulpen-zerbitzua eskatu ahal izango da. (Alfredo Goñi)

INFORMAZIOA EMAN:

- Ikastetxea erakutsi.
- Ikastetxeko informazio praktikoa: egutegia, ordutegia, jantokia eta arau orokorrak
- Hezkuntza-sistemari buruzko oinarritzakoa informazioa (hezkuntza.net).
- Diru-laguntzak jasotzeko aukera azaldu.
- Gizarteko beste zerbitzu batzuen berri eman, balioa azpimarratu, bideratu...
- Azaldu mailan eta taldean kokatzeko zer egiten den ikastetxean.

INFORMAZIOA JASO (1A ERANSKINA):

- Datu pertsonalak eskatu.
- Galdetu aurreko eskolatzeari buruz.
- Familiari buruzko informazioa: espektatibak, etxean zenbat diren...
- Osasun aspektuak.
- Ikaslearen interesei buruzko informazioa.

4.2 BIGARREN ELKARRIZKETA

Tutorea ikaslearen eta familiaren erreferentziatzako pertsona da, eta haren bidez garatuko dira harreman afektiboak. Horregatik tutorea izango da bigarren elkarrizketaren arduraduna.

Bigarren elkarrizketan ikaslearekin jarraitu behar den programaren berri emango zaie eta ziurtatuko da familiarekin kontaktua.

INFORMAZIOA EMAN:

- Ikaslearekin jarraituko den programari buruz informatu
- Ikaslearen ordutegia eta arloetako irakasleen izenak eman.
- Gelako araei buruzko oinarritzakoa informazioa eman: etxerako lanak, gelako bilerak...
- Azaldu materiala nola eskuratu: liburuak, koadernoak...
- Irakasleekin komunikazioa nola egin daitekeen azaldu.
- Taldean ahal den hoberen integratzeko bideari buruz informatu (eskolaz kanpoko jarduerak, adibidez)

INFORMAZIOA JASO (1B ERANSKINA):

- Lehen egunei buruzko informazioa eskuratu: ikaslea nola bizitzen ari den egoera berria: eskolan eta kanpoan.
- Kontaktua ziurtatu: Familiarekin zein izan daitekeen ordurik hoberena hitz egiteko, norekin hitz egin...

2. IKASLE BERRIA ETORRI AURRETIK

2.1. Ikaslearen herrialdea eta kultura ezagutzeko jarduerak

Helburuak:	<p>Gelako ikasleak inplikatzera ikasle berriaren harreran.</p> <p>Ikasle berriaren herrialdeari eta kulturari buruz informatzea.</p>
Partaideak:	Gelako ikasleak eta tutorea.
Jarduerak:	<p>1. Ikaslearen herrialdeari buruzko informazioa jaso:</p> <p>a.- Herrialdea mapan kokatu.</p> <p>b.- Informazioa bilatu herrialdeari buruz http://go.hrw.com/atlas/span_htm/world.htm</p> <p>2. Ikaslearen hizkuntzari buruzko informazioa jaso:</p> <p>a.- Kortesiako esaldiak edo agurrak ikasi. Bestela, "say Hello to the WORLD" web orrian topa daiteke:</p> <p style="text-align: center;">http://www.ipl.org/div/hello/</p> <p>3. Herrialde horretako pertsona ospetsu bati buruzko informazioa bilatu: idazlea, kirolaria, artista, politikaria...</p> <p>4. Herrialde horri buruzko ipuin bat irakurri, musika entzun: (HIPI gelan)</p> <p>Bibliografian, munduko ipuinen liburuen erreferentziak aipatzen dira.</p> <p>5. Munduko jolasak (HIPI gelan).</p> <p>6. Duelo migratorioaren berezitasunak (HIPI gelan).</p>
Materiala:	<p>Munduko mapa handia.</p> <p>Mapak sarean:</p> <p>United Nations Cartographic Section: http://www.un.org/Depts/Cartographic/english/htmain.htm http://go.hrw.com/atlas/span_htm/world.htm</p>
Liburuak:	<p><u>Quincemundos. Cuentos Interculturales.</u> Teresa Durán. Graó.</p> <p><u>M de Mundo, I de India, Ch de China...</u> Intermon Oxfamek argitaratutakoak.</p> <p><u>Ni bezalako haurrak</u> Kindersley, Barnabas eta Anabel. "Ni bezalako haurrak". Bruño, 1995.</p> <p><u>"Yo soy de..."</u> bilduma. Associació de Mestres Rosa Sensat. Honako herrialde hauetakoak daude: India, Japonia, El Salvador, Arabiar Emirerri Batuak, Benin, Txina, Maroko Norvegia.</p> <p><u>El telar de los cuentos.</u> Batt, T. R. Intermon/Oxfam</p> <p><u>Nuestros cuentos favoritos de todo el mundo.</u> Gain, J. Blume.</p> <p><u>Nairobotarra: Munduko ipuinak.</u> Argia.</p>

2.2. Ikaslearen egoeran jartzeko jarduerak

Helburuak:	Gelako ikasleak inplikatzera ikasle berriaren harreran. Beste baten lekuan jartzea: enpatia-sentimendua sortu.
Partaideak:	Gelako ikasleak eta tutorea.
Jarduerak:	<p>1.- Elkarrizketa</p> <p>Denen artean, tutoretza-saio batean egoera hauek komentatu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Inoiz toki ezezagun batean izan garenean zer sentitu dugun: udalekuetara bakarrik joan garenean, beste eskola batera joan ginenean... • Inoiz izan garen bertako hizkuntza ez genekien herrialde batean: oporretan, denboraldi batean bizi izaten... • Ni ikasle berriaren tokian egongo banintz, zer gustatuko litzaidake besteek egitea? <p>2.-Rol playing</p> <p>Egoera hauek antzeztu eta ondorioak atera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zure amak enpresa batean lan egiten du. Sei hilabeterako, Japoniara joatea eskatu diote. Familia osoa joango zarete eta zuk 6 hilabete pasatuko dituzu hango eskola batean. • Gaur zure lehen eguna da: <p>A.- Sarreran zaude, sartu baino lehen. Aitak eskolaraino lagundu dizu eta orain gelara joan behar duzu. Eskola behin bisitatu duzu, baina ez duzu ondo gogoratzen nondik joan behar duzun.</p> <p>B.- Klasean egon ondoren, jolastokira irteteko ordua iritsi da. Neska-mutilak zuk ezagutzen ez duzun jolas batean ari dira primeran pasatzen. Zuk jolastu nahi duzu.</p> <p>C.- Bazkaltzeko ordua da. Japoniako janariak eta hemengoak desberdinak dira. Zure gelako batzuk ilaran daude janaria hartzeko.</p>

2.3. Ikasle berriari eskaintzeko materialen prestakuntza

Helburuak:	Gelako ikasleak inplikatzera ikasle berriaren harreran. Beste baten lekuan jartzea: enpatia-sentimendua.
Partaideak:	Gelako ikasleak eta tutorea.
Jarduerak:	<p>1.-Aurkezpena eta gela prestatu:</p> <p>-“Lagun berria” izendatu. Nor izan daitekeen eta zer eginkizun izango dituen adostu denen artean (2A ERANSKINA):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kontutan hartu beharrekoa aukeraketarako: <ul style="list-style-type: none"> ○ txandakatzea komeni da ○ sexu berekoa izatea ○ ikasle berriaren hizkuntza ere menderatzen duen norbait • Zereginak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Ikasle berria eskolatik buelta bat ematera eraman, eta biderik ohikoenak erakutsi, ondo ezagutu arte: nola joan jantokira, zuzendaritzara... ○ Ikasle berriari komunak erakutsi, ikur eta ikono garrantzitsuenak azaldu, eta komunera joateko baimena nola eskatzen den erakutsi. ○ Gonbita egin jolas-garaian gelako lagunaren taldean jolasteko, eta jolasak azaldu eta parte hartzen animatu. ○ Lehen egunetan elkarrekin bazkaltzeko gonbita egin. ○ Ikasle berriaren ondoan eseri lehen egunetan, gelako errutinei jarraitzen laguntzeko. ○ Behar duenerako, irakasleari laguntza eskatzen erakutsi... <p>- Denen artean hitz egin ikasle bakoitzak zer egin dezakeen ikasle berriari laguntzeko. Adostutakoa gelako toki batean geldituko da idatzita.</p> <p>- Aurkezpena prestatu: ikasitako agurrak (2B RANSKINA)</p> <p>- Gela apaindu: herrialdeari buruzko argazkiak, horma-irudiak, toki berezi bat prestatu materialekin...</p> <p>2.- “Ongietorri-liburua” prestatu:</p> <p>- Liburuan gelako ikasleek egindako marrazki bat eta gelako aurkezpen-datuak egongo dira, bai eta tutorea ere.</p> <p>- Ikasle bakoitzaren edo taldearen argazkia erantsi daiteke, bakoitzaren izena idatzita duela.</p>



- Ongietorri-liburua eskainiko zaio ikasleari etortzen den egunean.

3. IKASLE BERRIAREN LEHEN EGUNA

Jende berria, sentsazio eta emozio ugari, egoera berriari aurre egiteko beldurrak, zalantza asko, guzti hori sortzen zaigu ikasle berri baten datorrela dakigunean.

Lehendabiziko une horiek lasaiagoak, antolatuagoak izan daitezzen, lehen egunetarako programatxo hau prestatu dugu. Ez dago adinera edo ziklora egokituta, eta irakasle bakoitzak bere egoeraren edo premien arabera erabili ahal izango du: hasieratik amaierara jarraituz, edo ideia solteak probetxatuz.

3.1. Aurkezpena gelan

Helburuak:	Etorri berria den ikasleari ongi etorria egitea.
Partaideak:	Gela osoa, ikasle heldu berria eta tutorea.
Materiala:	Aldez aurretik prestatutako ongietorri-liburua eta kanta. Aurkezpen-jolasak (3A ERANSKINA)
Jarduerak:	<p>1.- Agurra: Izendatutako "lagun berriak" (enbaxadorea) heldu berria agurtuko du, ikaslearen hizkuntzan, bere tokira lagunduko dio eta "ongietorri" liburua oparituko dio.</p> <p>2.-Harrera: Gelakideek egun horretarako prestatutako kantaren bat abestuko dute, beraien alaitasuna adieraziz. (Kanta, adinaren arabera, keinuen bidez egin daiteke).</p> <p>3.- Ikasle berriaren aurkezpena: Irakasleak edo lagun berriak aurkeztuko dute haurra: izena esan, arbelean idatzi, nondik etorri den adierazi mapari begira....</p> <p>4.- Gelakideen aurkezpena: Gelakideen aurkezpena jolasen bidez. (ikus 3A ERANSKINA, <i>Aurkezpen-jolasak</i>: "hau nire laguna da" / "hemen azkura dut" / "izenen jolasa").</p>

3.2. Hasierako uneak (1)

Helburuak:	Ikaslearen hasierako uneko presioa baretu.
Partaideak:	Lagun berria, ikasle etorkina.
Materiala:	Ongietorri-liburua. Papera, margoak, arkatza...
Jarduerak:	<p>Lehendabiziko agurra egin ondoren, gainerako ikasleak beraien eginkizunetara itzultzen direnean, "lagun berria" arduratuko da haurrarekin egoten.</p> <p>1. Ongietorri-liburuko edukiak aztertu bien artean: Izenak ikasteko argazkiak eta irudiak ikusi, eta keinuen bidez pertsona seinatu, eta ozenki errepikatzen eskatu.</p> <p>2. Ikasle berriak egindako marrazkia gehitu ongietorri-liburuari. Ikasle laguntzaileak papera eta margoak eskainiko dizkio eta, keinuen bidez, marrazki bat egiteko eskatuko dio. Denbora horretan, ikasle berriari lasai egoteko aukera emango diogu.</p> <p>Jolas-garaia: Gelan, aurretik tutoretza-saioetan landutakoa gogoratuko da: ikaslearen egoera berezia, zer sentitzen den, zer egin behar dugun egoera horretan laguntzeko.</p> <p>Komeni da lehen egun horietan tutorea jolas-lekuan egotea, ikaslearen erreferentzia izan dadin.</p> <p>Egoera hori ikaslearen jarrera behatzeko aprobeitza daiteke: besteengana hurbiltzeko estrategiak, non kokatzen den, norengana jotzen duen (familiako norbaitengana, ezagunen batengana...)</p>

3.3.- Hasierako uneak (2)

Helburuak:	Ikastetxea ezagutzea. Oinarrizko materialak ezagutzea. Ordutegia, lana ezagutzea.
Partaideak:	Ikasle berria eta tutorea. Lagun berria.
Materiala:	Materialen kutxa: Ikasle etorkinarentzat prestatua eta honako materialak dituena: <ul style="list-style-type: none"> • Eskolako oinarrizko materialak: arkatza, margoak, guraizeak... • Ipuinak, komikiak, irudi bidezko hiztegia, alfabetoa letra handiz eta txikiz • Lan egiteko oinarrizko materialak: Matematika arlokoak, Mini Arco...
Jarduerak:	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikastetxea ezagutu. (Lagun berriarekin edo tutorearekin egin daiteke jarduera hau). Ikasle berriari eskolako tokirik erabilienak erakutsiko dizkiogu: komunak, kiroldegia, jantokia, liburutegia... Pertsona batzuk aurkeztuko dizkiogu, ikaslearekin harreman zuzena izango dutenak: heziketa fisikoko irakaslea, ingeleseko irakaslea, atezaina, jantokiko begiraleak... Komeni da irakasle guztiak jakinaren gainean egotea, eta protokolo hau bete daiteke: atea jo, irakasleari irteteko esan eta ikaslea aurkeztu. 2. Hizkuntza indartzeko irakaslea eta hizkuntza-gela aurkeztu. Gela horretan denbora eman dezake ikasleak irakasle laguntzailearekin, hizkuntza- edo laguntza-gela ezagutzeko. 3. Materialen kutxa, gela arruntean izango duena, eskaini ikasleari. Tutoreak aurretik prestatutako kutxa emango dio heldu berriari, ikaslea gelan dagoen bitartean hainbat lan egiteko aukera izan dezan. Material horiek ikaslea nekatuta edo deseroso sentitzen denean erabiliko dira, bere kideak egiten ari diren lana ezin duenean jarraitu... Ikasleak kutxa margo dezake, bere izena jarri, gustuko argazki bat itsatsi... Bukatzen duenean, bilatu gelan toki bat kutxa gorde dezan. Gelako liburutegian, ikasle horrentzat aproposak izan daitezke liburuak utziko dira. (ikus 2. B eranskina. Liburuaren txokoa). Bakarrik, tutorearekin edo beste ikasleren batekin erabili daitezke, hizkuntza eta hiztegia lantzeko. 4. Hasierako egunetarako ordutegia azaldu. Tutoreak ikasleari bere ordutegia azalduko dio taula batez bailaturik. Hasieran, ikasleak erabiliko duen ordutegian, irakaslearen izena eta tokia jarriko dira, eta irakasle bakoitzaren izena kolore batez identifikatuko da.



	Egunero, ikaslea ohitu arte, ordutegia birpasatu bai tutorearekin bai lagun berriarekin.
--	--

4. INTEGRAZIOA BULTZATZEKO JARDUERAK

4.1. Sarrera

Ikasle etorkinaren harrera ez da lehen egunetara soilik mugatu behar. Izan ere, ikasle berriaren girotze-prozesuak eskolan dauka lehen eremua, eskolan egiten baitira lagunak. Eskolaren zeregina bihurtzen da harreman onak egiteko aukera eskaintzea, ikasle etorkinekin kasuan, bereziki. Horregatik, integrazioa helburutzat hartu behar dugu gelan; planifikatu, jarduerak prestatu eta tutoretza-saioetan era sistematikoan landu. Hemen integrazioa bultzatzeko jolas batzuk proposatzen dira. Gela osoarekin egiteko dira, eta ez da beharrezkoa hizkuntza jakitea, ondo uler baitaitezke keinuen eta gorputz-mugimenduaren bidez.

Bukatzeko, ez da ahaztu behar noizbehinka hitz egin beharko dela ikasle berriaren egokitzapen-prozesuari buruz (4.3. atalean agertzen dira) zenbait fase baititu. Denen artean balioetsi beharko da aurretik gelan hartutako erabakiak bete diren ala ez:

- Lagun berriarena egiterakoan: izandako jarrera, alde onak, oztopoak...; lagun berriaren lana goraiatu; lagun berria aldatu.
- Gelakideen jarrera. Ondo egindakoak eta hobetu daitekeena.
- Prozesuan izandako zailtasunak.

4.2. Integrazioa bultzatzeko jolasak

Itsuaurrekoa

Helburuak:	Taldeko partaideen artean konfiantza sorraraztea, elkarri lagun diezaioten.
Partaideak:	Gelako ikasleak eta tutorea.
Materiala:	Zapi handiak, begiak estaltzeko.
Jarduerak:	Begiak estalita dituen laguna gidatu.
Garapena:	<p>Ezinbestekoa da isiltasuna egotea.</p> <p>Argi utzi behar da jolasaren helburua ez dela itsututa dagoen pertsonari oztupoak jartzea.</p> <p>Ibilbidean zehar "itsua" zenbait egoeratan jarriko dugu: zaratak bereizten, objektuak antzematen...</p> <p>Zer sentitzen duten da garrantzitsua, eta horretan jarri beharko dute arreta.</p> <p>Talde erdiak itsuarena egingo du. Partaide guztiak bikoteka jarriko dira: bat itsua izango da, eta bestea, gidaria. Gidariak itsuak aukeratuko dituzte, baina hauek ez dute jakingo nork gidatzen dituen.</p> <p>Denboratxo batean (10 min) horrela ibili ondoren, rol-aldaketa egingo da. Bukatzeko, sentitutakoari buruz hitz egingo da talde handian.</p>

Nora noa?

Helburuak:	Konfiantza handitzea.
Partaideak:	Gelako ikasleak eta tutorea.
Materiala:	<p>Hiruko taldeak.</p> <p>Zapiak, begiak estaltzeko.</p>
Jarduerak:	Pertsona bat gidatu, gustuko soinuen bidez.
Garapena:	<p>Bi ikasle aurrez aurre kokatuko dira 7-8 metroko distantzian. Beste ikasle bat, begiak estalita dituela, bien artean kokatuko dugu. Ikusten ez duenak ezingo du jakin beste biak non dauden, eta hauek soinu edo zaraten bidez erakarri egin beharko dute.</p> <p>Gustuko soinua entzuten duenean, pauso bat emango du hotsa datorren alderantz. Soinuak ez badu erakartzen, geldirik geratuko da. Itsua ahalik</p>

	eta azkarren erakartzea da jolasaren xedea. Ondoren, rolak aldatuko dira hirukotean.
--	--

Txio-txio

Helburuak:	Taldekideen arteko konfiantza eta batasuna lortzea.
Partaideak:	Gelako ikasleak eta tutorea.
Materiala:	Zapiak (bi jokalarik izan ezik, gainerakoek begiak estalita eraman behar dituzte).
Jarduerak:	Ama oiloa edo aita oilarra bilatu.
Garapena:	<p>Animatzaileak bi ikasleri belarrira esango die beraiek direla ama oiloa edo aita oilarra. Horiek gelan zehar mugituko dira, baina ezin dute ezer esan.</p> <p>Gelakide guztiak, begiak estalirik dituztela, gelan mugitzen hasiko dira. Beste pertsona batekin topo egiten direnean, eskua eman eta hau galdetuko dute: "txio-txio?". Bestearen galdera ere " txio-txio" baldin bada, eskuak askatu eta ibiltzen eta galdetzen jarraituko dute.</p> <p>Ama edo aita oiloari galdetzen diotenean, erantzungo ez dutenez, eskutik hartuko dituzte, elkarri helduta ibiltzeko eta talde gero eta handiagoa osatzen joateko. Horrela jarraituko dute, gelakide guztiak batera egon arte.</p>

Zooa

Helburuak:	Bikotearen arteko kooperazioa lortzea, bestea lehenbailehen topatzeko. Sentikortasuna eta entzuteko ohitura indartzea.
Partaideak:	Gelako ikasleak eta tutorea.
Materiala:	Animalien marrazkia edo izena duten txartelak (bi txartel animalia bakoitzeko).
Jarduerak:	Bikoteak osatu animalien hotsak entzunez.
Garapena:	Ikasle bakoitzari txartel bat emango zaio. Bakoitzak bere kidea aurkitu behar du, txartel berdina duen pertsona. Horretarako, animalia hotsa egin beharko dute.

Bizkarreko masajea

Helburuak:	Kideari gustuko sentsazioa eskaintzea.
Partaideak:	Gelako ikasleak eta tutorea.
Materiala:	Ez da ezer berezirik behar.
Jarduerak:	Gorputzaren bidez komunikatzen ikasi.
Garapena:	<p>Jolas hau isil-isilik egiten da.</p> <p>Partaide guztiak bikoteka jarriko dira. Bat lurrean etzanda, bestea belauniko, aldamenen. Belauniko dagoenak eskuak bestearen bizkarraren gainean jarriko ditu, animatzailea zenbait proposamen egiten hasten denerako: eskuak mugitu, animalia handi bat izango balitz bezala; atzamar-puntaz ukitu, arratoitxo bezala; arrastaka joan, suge bat bezala...</p> <p>Animatzaileak agintzen duenean, rola aldatuko da.</p> <p>Ondoren, bikotearen artean ea gustukoa izan duten ala ez komentatuko dute.</p>

Giza-ispilua

Helburuak:	Bestearekiko arreta handitzea.
Partaideak:	Gelako ikasleak eta tutorea.
Materiala:	Kaseteak edo CDak. Entzuteko gailua.
Jarduerak:	Bikotean jarrita, batek egiten dituen mugimenduak besteak imitatu.
Garapena:	<p>Ikasleak bikoteka jarriko dira, zutik, bata bestearen aurrean, bat gidaria delarik. Musika hasten denean, bikoteko gidariak zenbait mugimendu egingo ditu motel eta poliki. Besteak imitatu egingo du, mugimendu berdinak eginez. Jokalariak ezin dira beraien tokitik mugitu, eta, betiere, mugimendu mantsoak eta motelak egingo dituzte. Minutu batzuk pasa ondoren, bikoteko partaideen paperak aldatu egingo dira.</p> <p>Jokalariak azkar mugitzen badira, poliki edo mantso mugitzeko esango zaie.</p>

<i>Marrazketa alternatiboa</i>

Helburuak:	Lan bat burutzeko komunikazioa eta elkarlana lortzea.
Partaideak:	Gelako ikasleak eta tutorea.
Materiala:	Paperak, margoak, pintzelak.
Jarduerak:	Bikoteka, marrazki bat osatu.
Garapena:	Txandaturaz, bikoteko partaide bakoitzak trazu bat egingo du, marrazkia osatu arte.

<i>Formak eraiki</i>

Helburuak:	Lan bat burutzeko komunikazioa eta elkarlana lortzea.
Partaideak:	Gelako ikasleak eta tutorea.
Materiala:	CDak edo zintak. Entzuteko gailua.
Jarduerak:	Ikasleen artean forma geometrikoak osatu.
Garapena:	<p>Musika lasaia jarri ondoren, ikasleak gelan zehar mugitzen hasiko dira.</p> <p>Musika gelditzen denean, irakasleak irudi geometriko baten izena esan edo erakutsiko du —laukia, adib.—, eta jokalaria guztien artean forma hori osatu beharko dute beraien gorputzekin, ahalik eta azkarren.</p> <p>Denbora kontuan har daiteke, baina garrantzitsuagoa izan daiteke umeen erreakzioei behatzea: nork agintzen duen, nork imitatzen duen...</p>

Uztai kooperatiboak

Helburuak:	Kooperazio-idea lantzea, umeen mugimenduen koordinazioaren bidez.
Partaideak:	Gelako ikasleak eta tutorea.
Materiala:	Psikomotrizitate-uztaiak eta musika-gailua.
Jarduerak:	Uztai baten barruan ahalik eta ume gehien bildu.
Garapena:	<p>Bikoteka jarri ondoren, ikasle biak uztai baten barruan sartuko dira. Partaideak, uztai zati batetik helduta, gelatik saltoka arituko dira, musika dagoen bitartean. Musika gelditzen den bakoitzean bi bikote elkartu egingo dira, uztai bat bestearen gainean jarrita, bakar bat osatuz. Horrela jarraituko dute ahalik eta ikasle gehien uztai baten barruan sartu arte.</p> <p>Jolas honetan hau balioetsiko da: mugimenduen bateratasuna, eta norabide berdinean, erritmo egokiz mugitzeko trebetasuna.</p>

Urpeko lagunak

Helburuak:	Taldearen barruan komunikazio eta koordinazio azkarra suspertzea.
Partaideak:	Gelako ikasleak eta tutorea.
Materiala:	Zapiak, begiak estaltzeko.
Jarduerak:	Taldeka (urpekariak) partehartzailleak batu egiten dira aingurak jaurtiz.
Garapena:	<p>Jolasa hasi aurretik, seinaleen esanahiak adostuko dira. Adibidez, sorbaldan ukitu batek alde batera joatea esan nahiko du; bizkarrean ukitu batek aurrerantz joatea; buruan ukitu batek, eskuak aurrerantz kokatzea...</p> <p>4 -5 laguneko taldeak egingo dira, eta ilaran, bat bestearen atzean, kokatuko dira sorbaldatik helduta. Atzekoak izan ezik, gainerakoek begiak estalita izango dituzte. Atzekoak taldea gidatzen du, alde aurretik adostutako seinaleak erabiliz, eta atzetik aurrerantz seinaleak bidaliz.</p> <p>Jolasaren helburua da ahalik eta urpeko gehien batzea —bat egitea—. Horretarako, ilaran lehenengo kokatuta dagoen jokalaria beste ilara baten azken jokalaria sorbaldatik heldu beharko dio; gero eta urpekari luzeagoa egin dadin.</p> <p>Taldearen arteko komunikazio ona eta izandako zailtasunak aipatu daitezke jolasa bukatutakoan.</p>



4.3. Egokitzapen-prozesuaren faseak

Norberarena ez den herrialde batean bizitzen hastea ez da erraza familientzat. Denbora behar da inguru berria ezagutzeko. Elizabeth Coelhok* lau aldi edo garai aipatzen ditu egokitzapen-prozesuan:

- **Hasierako berotasuna (entusiasmoa).** Etapa horretan, iritsi berriek hau sentitzen dute:
 - Idealismoa, urduritasuna.
 - Etorkizunarekiko larritasuna.
 - Baikortasuna herrialde eta aukera berriekiko.

- **Shock kulturala.** Etapa horretan, iritsi berriek:
 - Kezka, antsietatea, egonezina, gaizki ulertzea eta harridura sentitzen dute.
 - Beren burua behatzaile modura ikusten dute.
 - Utzikeria, alienazioa eta batzuetan jarrera agresiboa izaten dute.
 - Ez dute harremanik izan nahi kultura berriarekin, ez eta kultura horretako pertsonekin ere.

- **Berreskurapena, optimismoa.** Etapa honetan,
 - Jarrera baikorragoa izaten dute. Kezka gutxitzen hasten da.
 - Hizkuntza nahiko ondo ulertzen dute.
 - Beste jokabide batzuk izaten saiatzen dira.

- **Integrazioa, akulturazioa.**
 - Oreka emozionala berreskuratu dutela sentitzen dute.
 - Aldarte ona eta konfiantza sentitzen dute.
 - Gai dira bi kulturak balioesteko: oraingoa eta lehengoa.

Adierazitakoa pertsoneri oro har gertatzen zaiena da, baina garrantzitsua da esatea gerta daitekeela ikasle batzuek egokitzapen-faseren bat bizi ez izatea edo bi garaitako sentimenduak batera bizitzea. Norbanakoen artean alde nabarmenak egon daitezke, bai eta familia bereko pertsonen artean ere.

ERANSKINAK

1A ERANSKINA: Ikaslearen oinarrizko informazioa**1.-DATOS PERSONALES**

Nombre		
Apellidos		
Fecha de nacimiento	Fecha de llegada al país	Fecha de escolarización
País de nacimiento	Ciudad/Pueblo	
Lengua/s materna/s	Teléfonos de contacto	
Domicilio Actual:		

2.- DATOS FAMILIARES

Nombre del padre	Procedencia	Lengua habitual
Nombre de la madre	Procedencia	Lengua habitual
Nombre de los hermanos/as		
Lengua de comunicación entre la familia y el centro escolar	¿Con quién vive?	

3.- ESCOLARIZACIÓN ANTERIOR

Nivel	Años cursados	¿Interrupciones?
Nombre del centro y dirección	Lengua de la escuela	
Otros datos: (documentación)		
Otras informaciones:		
OBSERVACIONES:		



4.- OTROS DATOS DE INTERÉS

ASPECTOS DE SALUD (enfermedades, alergias,...)

CARÁCTER, FORMA DE SER (alegre, tímido,...)

HABILIDADES

INTERESES Y EXPETCATIVAS FAMILIARES

1B ERANSKINA: Tutorearekin bilera.**1. LEHEN EGUNAK SEGURAN NOLA IGAROTZEN ARI DIREN (Eskolan eta kanpoan)****2. MIGRAZIOA NOLA IZAN DEN (Ibilbidea, norekin, zenbat denbora...)****3. KONTAKTUA ZIURTATZEKO (Bilerak egiteko ordutegia eta egunak)**

2A ERANSKINA. Lagun berriak (*enbaxadoreak*)

Lagun berria ikasle etorkinaren erreferentziako gelako pertsona bat izango da, gelako ordezkaria heldu berriaren aurrean. Gelan zein eskolan ikasle berriaren harrera erraztea izango da haren lana.

Lagun berria lan horretarako aurkezten diren gelakideen artean aukeratuko da, eta komeni da ikasle guztiek noizbait funtzio hori betetzea.

Ahal izanez gero, hasierako uneetan komunikazioa errazteko, ikasle berriaren hizkuntza eta eskolakoak dakizkien norbait izango da *lagun berria*.

Ondoren, *lagun berria* txandakatzea komeni da, dependentziarik ez sortzeko eta etorri berria den ikaslearen autonomia garatzen errazteko.

Batzuetan, sexu berekoa izatea ere garrantzitsua izan daiteke, etorri berriaren eta enbaxadorearen arteko harremana errazagoa izateko. Izan ere, askotan, adinak edo erlijioak zaildu egiten du sexu desberdinekoen arteko harremana hurbila izatea.

Ikasle berria heltzen den lehen egunean, harreraren ardura hartuko du *lagun berriak*, eskolako lekuak ezagutzen lagunduko dio; batez ere, erreferentziako eta hizkuntza indartzeko gelak.

Lagun berriaren betebeharrak ezin dira burutu prestatu gabe. Komeni da, denen artean, ikasle berriarentzat premiazkoak eta garrantzitsuak izan daitezkeen hainbat gai lantzea tutoretza-saio batzuetan.

Lagun berriaren lana bete dezakeen boluntario-taldearen inplikazioa lortzeko eta lana antolatzeko ideia batzuk hauek dira:

- Iritsi berriak hasierako egunetan sentituko duenaz eztabaidatzea, beste batzuen esperientzietan oinarrituz.
- Ikasleen ekarpenak gai honi buruz: "heldu berriaren lekuan egongo banintz, zer gustatuko litzaidake besteek egitea?"
- *Lagun berriaren* zereginen zerrenda egitea eta erantzukizunak banatzea.

Lagun berriaren lanak eskola-komunitatearen oniritzia jaso beharko du eta gogoeta egitera bultzatu behar du: laguntza, kooperazioa, bestearen lekuan jartzeaz eta harrera egiteaz; hori eginez, denok ikasten baitugu.
Oniritzia adierazteko modu asko daude, adibidez

- Gurasoei gutuna bidali haien seme alabak egin duen lana azalduz, eskertuz eta lan horrek izan dituen ondorio positiboak gorai patuz.
- Zuzendariak sinatutako agiria eman.



- Zuzendaritza-taldekoen komentarioak egin denen aurrean, haien esker ona azaltzeko.
- Denek ezagutzen duten bereizgarriren bat eraman (intsignia, pegatina bat...) eskolan *lagun berriaren* lana egiten duen bitartean.

ZEREGINAK

1. Ikasle berria eskolatik buelta bat ematera eraman, eta biderik ohikoenak erakutsi, ondo ezagutu arte: nola joan jantokira, zuzendaritzara...
2. Ikasle berriari komunak erakutsi, ikur eta ikono garrantzitsuenak azaldu, eta komunera joateko baimena nola eskatzen den erakutsi.
3. Gonbita egin jolas-garaietan gelako lagun taldean jolasteko, eta jolasak azaldu eta parte hartzen animatu.
4. Lehen egunetan elkarrekin bazkaltzeko gonbita egin.
5. Ikasle berriaren ondoan eseri lehen egunetan, gelako errutinei jarraitzen laguntzeko.
6. Behar duenerako, irakasleari laguntza eskatzen erakutsi...

2B ERANSKINA. Agurren gorputz hizkuntza

Helburuak:	<p>Kultur agerpenak errespetatzea eta horiek dakarten aberastasuna azpimarratzea.</p> <p>Gorputzaren bidez komunikatzeko beste keinu eta era batzuk ezagutzea.</p> <p>Eztabaida-maila: taldea/gela.</p> <p>Transmititzeko balioak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Adiskidetasuna. • Sentimenduen adierazpena.
Metodologia:	<p>Jarduera hau gorputz-hezkuntzako klasean egin beharko da. Kartoi mehe bana emango zaio parte-hartzaile bakoitzari: munduko kultura baten edo batzuen ezaugarri den agur edo despedida bat idatzita izango du. Irakasleak adieraztean, ikasle guztiek ozenki errepikatu beharko dute beren agurra, modu berean agurtzen duen beste gelakide bat/batzuk aurkitu arte. Agurrak elkarren ondoan jarri ondoren, talde bakoitzak agur berri bat "asmatu" behar du, baina, oraingoan, gorputz-hizkuntza bakarrik erabiliz. Behar den keinua aukeratu ondoren, taldeek espazioan zehar mugitu behar dute, elkarri agurrak eginez.</p>
Lan-fitxa:	<p>Munduko herri askotan, abegia alaitasunez eta eskuzabaltasunez egiten da, gure etxea bisitatzen duenari begirunea erakutsi nahian. Kanpotar bat iristea ohorea da hartzen duenarentzat, eta kulturetan askotariko kortesia-jarrerak daude, bisitaria alaitzeko.</p> <p>Dena den, ez da erraza Asiako zenbati tokitan dauden bezain formula adierazkor eta atseginik aurkitzea. Han lore-girlandak jartzen dizkiote lepoan etorri berriari, agur eta harrera-keinu gisa, eta, bitartean, harrera-esaldiak esaten zaizkio. Oro har, emakumeek eta hurrek egiten dituzte girlanda horiek, lorerik politenak eta usaintsuenak elkarren atzean lotuz. Emaizta ikusmenerako eta usaimenerako gozamina da.</p>

AGURREN ADIBIDEAK			
Jatorria	Hizkuntza	Ahozko agurra	Keinuak
Mundu arabiarra	Arabiera Bereberra	Salam maleikum (Bakea bedi zuekin) Wo aleikum essalam (Eta bakea zuekin)	Eskuak buruan = Jaungoikoa. Eskuak bekokian = irakaslea. Eskuak bihotzean = laguna. Eskuak elkarturik= zu bezalakoa den beste pertsona bat.
Asia	Bengalera, B. Kristaua, Hindiera, Singalesa, Gujeratia, Japoniera, Pakistandarra	Namaskar Yesu pranam Namaste Ayubowan Susvagatam Sayonara	Lore-koroa jartzea. Gorputza aurrerantz makurtzea, besoak zabalik eta gorputzaren aldamenean. Keinua hiru aldiz egin. Diagonalean besarkada bat ematea.
Errusia	Errusiera		Bostekoa eman eta burua makurtzea. Bostekoa eman, besarkada, musu bat ahoan.
Ijitoak	Ijito-hizkera	Lacho chive (Ongi etorri) Sastispen tali (Osasuna eta askatasuna)	Besarkada eta hiru musu.
Afrika beltza	Bubiera	Evari ee (Egun on) Potóé (Eskerrik asko)	Bostekoa eman eta, eskuak aldentzean, atzamarrekin soinua egin.
Hego Amerika eta Erdialdeko Amerika	Azteka-hizkuntzak -ketxuera	Amasuwa, amakella, mahulla (Ez lapurtu, ez esan gezurrik, ez izan alferra)	Bostekoa eman. Besarkada.
Europa	Euskara Gaztelera Katalana Galiziera Frantsesa Ingelesa...		Bostekoa eman. Besarkada. Bi, hiru, edo lau musu. Eskua bizkarraren gainetik pasatu.

3A ERANSKINA: Aurkezpen jolasak**Hau nire laguna da**

Helburuak:	Taldeko partaide guztien integrazioa bultzatzea.
Partaideak:	Gelako ikasleak eta tutorea.
Materiala:	Ez da ezer berezirik behar.
Jarduerak:	Taldeko partaide guztien integrazioa bultzatzea.
Garapena:	Ikasle guztiak borobilean eseriko dira eskutik helduta. Partaide bat hasiko da bere ezkerrean eserita dagoena aurkezten, eta lagunaren eskua altxatuko du. Jolasak denen aurkezpena egin arte jarraitzen du.

Hemen azkura dut

Helburuak:	Denen izenak ikastea.
Partaideak:	Gelako ikasleak eta tutorea.
Materiala:	Ez da ezer berezirik behar.
Jarduerak:	Denen izenak ikasi eta bakoitzaren ezaugarriren bat ezagutu.
Garapena:	Partaide guztiak borobilean eseriko dira. Lehenengo pertsonak esango du: " <i>Nire izena Carlos da eta hemen azkura dut</i> " (hori esaten ari den bitartean gorputzeko atal bat ukituko du, burua, adibidez). Ondoren, bigarren batek esango du: " <i>Honek Carlos du izena eta hor du azkura</i> (Carlosen burua ukitzen duen bitartean), eta <i>Ni María naiz eta azkura dut</i> " (gorputzeko atalen bat adierazten duen bitartean). Horrela jarraituko dute borobilean eserita dauden guztiak esan arte.

Izenen jolasa

Helburuak:	Denen izenak ikastea.
Partaideak:	Gelako ikasleak eta tutorea.
Materiala:	Ez da ezer berezirik behar.
Jarduerak:	Taldeko partaide guztien integrazioa bultzatzea.
Garapena:	<p>Animatzailea hasiko da bere izena eta bere izaera edo gustuko duen zerbait esanguratsua adierazten keinuen bidez (adibidez: gitarra jo, egunkaria irakurri, lo egin...). Taldeko edozein animatzailea zertan ari den konturatzen denean, ozenki esango du. Ondoren, asmatu duen horrek edo aldameneko pertsonak bere izena esan eta keinua egingo du. Gainera, aurrekoaren izena ere esango du. Partaide guztiek jarraituko dute erronda osoa bukatu arte.</p> <p>Jolasaren bigarren zatian, animatzaileak beste partaide batek egindako keinua errepikatuko du. Gainerakoek hasieran keinu hori egin duen pertsonaren izena asmatu beharko dute. Segidan imitatua izan den pertsonaren txanda izango da: taldearen aurrean beste batek egindako keinua errepikatuko du.</p> <p>Jolasa amaitzeko, hirugarren atala: animatzaileak taldeko partaide baten izena aipatuko du eta gainerakoek dagokion keinua egingo dute. Gero aipatutakoari tokatuko zaio jolasarekin jarraitzea denak pasatu arte</p>